

## Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.

### Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián

#### Neuk ziurtatua: Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2020ko maiatzaren 25an izan zuen ohiko bileran, erakunde adierazpen hau onartu zuen, gehiengoz:

*“Azken egunotan, Euskal herri batzuetan hainbat eraso eta mehatxu izan dira alderdi politiko batzuen egoitzen kontra. Testuinguru horretan, ordezkari politikoen etxeetan ere izan da erasoren bat. Mehatxu-kanpaina honek Donostian ere jasan dugu; izan ere, duela ordu batzuk eraso bat izan da Parte Zaharrean, alderdi politiko baten egoitzan.*

*Gaitzespenik gogorrena merezi duen egoera onartezin honen aurrean, Donostiako Udalean ordezkari dugun udal taldeok honako erakunde adierazpen hau egiten dugu:*

*1. Erabat gaitzesten ditugu eta guztiz arbuiatzen ditugu ekintza justifikaezin horiek, askatasun kolektiboari, demokraziari eta ordezkari politikoen intimitate pertsonalari eraso egiten baitiete.*

*2. Elkartasuna adierazi nahi diegu mehatxuak jaso dituzten alderdi politikoei eta euskal lurraldeetako beren egoitzetan erasoak jasan dituztenei.*

*3. Elkarrizketarekin, bestearikiko errespetuarekin, bizikidetzarekin, bakearekin eta askatasunarekin dugun konpromisoa*

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 25 de mayo de 2020, aprobó, por mayoría, la siguiente Declaración Institucional:

*“En los últimos días se ha producido una serie de ataques y amenazas a las sedes de diferentes partidos políticos en varias localidades vascas. En este mismo contexto, también se ha producido algún ataque en el domicilio particular de representantes políticos. Esta campaña de amenazas ha afectado también a Donostia, con el ataque registrado hace unas horas en la sede de un partido político en la Parte Vieja.*

*Ante esta situación inaceptable y digna de la más severa de las condenas, los grupos municipales con representación en el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián firmantes manifiestan:*

*1. La más absoluta condena y enérgico rechazo a estas injustificables agresiones a la libertad colectiva, a la democracia y a la intimidad personal de representantes políticos.*

*2. La solidaridad con los partidos políticos que se han visto amenazados y cuyas sedes en diversos puntos de la geografía vasca han sufrido ataques.*

*3. Reafirmamos nuestro compromiso con el diálogo, el respeto al diferente, la convivencia, la paz y la libertad, como valores supremos”.*



*berresten dugu, balio gorenak baitira”.*  
=====

=====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2020ko maiatzaren 27an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 27 de mayo de 2020

**IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL**

**Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA**

**ALKATEAK O. E. -  
V. ° B. ° DEL ALCALDE:**